

## PRENTSA OHARRA

### **Agurainek 2025eko aurrekontuak prestatzeko prozesuan aurrera urratsa eman du**

Udal gobernuak aurrekontuaren lehen zirriborroa aurkeztu du, 11.790.539 eurokoa, eta 18 eguneko epea zabaltzen zaio oposizioari proposamena aztertu eta zuzenketak egiteko.

### **Datorren azaroaren 13an herritarrentzako informazio-batzarra egingo da.**

2024/10/23 Agurain. Aurrekontua izapidetzeko egutegiak ezartzen duen bezala, udal gobernuak atzo aurkeztu zuen 2025. urterako aurrekontuaren lehen zirriborroa Ogasun Batzordean, guztira 11.790.539 eurokoa, 2024an baino % 24 txikiagoa. Lehen zirriborro hori oposizioko taldeak aztertuko du, eta 18 eguneko epea izango dute egoki iritzitako zuzenketak aurkezteko. Aurrekontuaren hasierako onarpena azaroaren 28ko osoko bilkurarako aurreikusita dago.

Lehen zirriborro honetan, ekainean hasitako partehartze-prozesuan herritarrek aukeratutako proiektuak jasotzen dira. Prozesu horretan, guztira, 19 proposamen jaso ziren baina teknikariek berrikusi eta herritarren bozketa-fasea igaro ondoren, bi izan ziren udal-aurrekontuetan sartzeko hautatuak, guztira 100.000 euroko aurrekontuarekin. Alde batetik, tirolina bat izango duen Errekako haur-parkea eraberritzea eta, bestetik, Errege Atariaren eta Udalaren arteko pasealekuko argiztapena hobetzea.

Horrez gain, badira ere beste proiektu garrantzitsu batzuk, besteak beste: Gazteentzako alokairu sozialeko etxebizitzak abian jartzeko Bustamante jauregia birgaitzeko obrak, (1.000.000 euro); eskola-eremuko eraikin publikoetarako eta anbulatoriorako biomasa bidezko bero-sarea eraikitzeko proiektua egitea eta obrak (995.000 euro); Senda Langarika plazaren urbanizazio proiektua egitea eta obrak (1.009.275 euro); Magdalena auzoa urbanizatzeko proiektua egitea eta obrak (551.600 euro); Zuberoka kaleko udal-lokalak egokitzeko eta ekipatzeko obrak (248.922 euro); eta hiri-baratzeak (182.000 euro) abian jartzea.

Diru-sarrereri dagokienez, Udalak zergak eta tasak eguneratu ditu, % 2,3ko igoera orokorraren bidez, zaborren tasan izan ezik, % 4 handitu baita 2025erako aurreikusitako gastua finantzatu ahal izateko. OHZn eta zaborren tasan errentagatiko hobarien taula 2024ko LGSaren arabera ere eguneratu da, eta honela geratuko da:

	T-0	T-1	T-2	T-3
Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	12.000 € edo gutxiagoko errenta	12.001 €tik SMIRA arte (15.876,00€)	SMI tik, 1,5xSMI arte (15.876,00€tik 23.814,00 €ra arte)	1,5xSMI tik 2xSMIRA arte (23.814,00 €tik 31.752 €ra arte)
1 - 2	% 90	% 75	% 35	% 0
3	% 95	% 90	% 50	% 25
4	% 95	% 90	% 75	% 50
5 edo gehiago	% 95	% 95	% 85	% 75

## NOTA DE PRENSA

### **Agurain avanza en la elaboración de los presupuestos de 2025**

El gobierno municipal presenta un primer borrador del presupuesto que asciende a 11.790.539 euros y que se someterá al estudio y presentación de aportaciones por parte de la oposición durante 18 días.

**El próximo 13 de noviembre se celebrará una asamblea informativa abierta a la ciudadanía.**

2024/10/23 Agurain. Tal y como establece el calendario de tramitación del presupuesto, el gobierno municipal presentó ayer en Comisión de Hacienda un primer borrador del presupuesto que asciende a 11.790.539 euros, un 24% inferior al ejercicio 2024. Este primer borrador se someterá al estudio por parte del grupo de la oposición y tendrán un plazo de 18 días para presentar las enmiendas que considere oportunas. La aprobación inicial del presupuesto está prevista para el pleno del 28 de noviembre.

En este primer borrador se incluyen los proyectos elegidos por la ciudadanía durante el proceso participativo iniciado en junio en el que hubo un total de 19 propuestas. Después de ser revisadas por el personal técnico y de pasar la fase de votación, fueron dos las que se incluirán en los presupuestos municipales con una dotación total de 100.000 euros. Por un lado, la reforma del parque infantil de Erreka que contará con una tirolina y, por otro lado, la mejora del alumbrado del paseo entre el Portal del Rey y el Ayuntamiento.

También se incluyen partidas importantes como las obras de rehabilitación del palacio Bustamante para la puesta en marcha de pisos dotacionales de alquiler social para jóvenes con 1.000.000 euros, la elaboración del proyecto y contratación de las obras de construcción de una red de calor mediante biomasa para edificios públicos de la zona escolar y el ambulatorio con 995.000 euros, la elaboración del proyecto y contratación de las obras de reurbanización de la Plaza Senda Langarika con 1.009.275 euros, la elaboración del proyecto y contratación de las obras de separativa de aguas y reurbanización del barrio de Magdalena con 551.600 euros, las obras de acondicionamiento y equipamiento de los locales municipales de la Calle Zuberoa para el nuevo CRAD con 248.922 euros o la puesta en marcha de huertos urbanos con 182.000 euros, entre otros.

Respecto a los ingresos, el Ayuntamiento ha actualizado los impuestos y tasas mediante un incremento general de un 2,3% excepto en la tasa de basuras que se incrementa en un 4% para poder financiar el gasto previsto de este servicio en 2025. También se ha actualizado la tabla de bonificaciones por renta para el IBI y la tasa de basuras en base al SMI del año 2024 que quedará de la siguiente manera:

	T-0	T-1	T-2	T-3
Nº miembros unidad convivencial	Renta igual o inferior a 12.000 €	De 12.001 € a SMI (15.876,00€)	Renta superior a SMI hasta 1,5xSMI (de 15.876,00€ a 23.814,00 €)	Renta superior a 1,5xSMI hasta 2xSMI (de 23.814,00 € a 31.752 €)
1 - 2	% 90	% 75	% 35	% 0
3	% 95	% 90	% 50	% 25
4	% 95	% 90	% 75	% 50
5 o más	% 95	% 95	% 85	% 75